



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

II. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Tortura Euskal Herrian 1960tik
2013a arte**

Pauline Guelle

118-124 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.02.14>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



Tortura Euskal Herrian 1960tik 2013a arte.

Guelle, P.

*IE2IA Université de Pau et des Pays de l'Adour (UPPA), Institut Universitaire Varenne (IUV),
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)¹. Massias, J.P.-n zuzendaritzaapean.
pauline.guelle@gmail.com*

Laburpena

Tesia lan honen ikerketak Euskal Herrian 1960tik 2013 arte izan diren tortura kasuak ikertuko ditu. Nazioarteko eta Gobernu Kanpoko Erakundeen (GKE) bidez, baita ere elkarrizketa zuzenei esker Euskal Herrian gertatu diren tortura kasuak ikertuko dira. Bide beretik azalduko da Espainiar Estatuak legedi antiterroristen bidez tortura ahalbidetu duela. Bestalde, azalduko da zergatik Espainiar Estatuak euskal gatazkari lotutako pertsonak torturatu dituen. Bukatzeko, generoaren ikuspegitik eginiko analisia azalduko da.

Hitz gakoak: Zuzenbide publikoa, Nazioarteko zuzenbide publikoa, Tortura, Euskal gatazka, Generoa.

Abstract

This thesis research will investigate the cases of torture from 1960 to 2013 in the Basque Country. Our work will be based on Non-Governmental Organizations (NGOs) publications, International reports and direct interviews. On the same way, we will explain that the Spanish government anti-terrorist legislation empowers torture. On the other hand, we will explain why the Spanish Government tortures basque people with alleged links to the conflict. Finally, we will attempt to give a gender perspective of this analysis.

Keywords: Public law, Public International law, Torture, Basque conflict, Gender.

1. Sarrera eta motibazioa

Lan honetan euskal gatazkari lotutako tortura kasuak ikertuko dira. 1960 eta 2013 urteen arteko tarte oinarritzat hartuz. Hain zuzen, epe honek hiru garai desberdinak analizatzeko parada eskaintzen du. Lehenik, frankismoaren diktaduraren amaiera (1960-1975), bigarrenik *Trantsizio demokratiko espainola* deitzen dena (1975-1982) (Baby; 2012); hirugarrenik, *Trantsizio demokratikotik* aro garaikiderako epea (1982-2013) analizatuko da.

Tortura aztertuko da Nazioarteko Giza Eskubideeri begira. Ikusiko da unibertsalki debekatua den praktika bat dela. Definitu eta sailkatuko dira torturaz izan diren adierazpen, konbentzio edota hitzarmen juridikoak nazioarte mailan. Batez ere Europa mailan eta Espainian izan diren legeak eta izenpetu diren protokoloak eta hitzarmenak.

Espainiako Trantsizioaren garaia ikertuz 2013. urtera arteko torturaren presentzia neurtuko da. Alde batetik, zuzenbideko ikuspegi batekin. Erakutsiko da Espainiar Estatuak legeriak torturaren debekatzea ez duela bermatu, nahiz eta torturatzeko formak aldatu diren. Hain zuzen, Espainiar Estatuak, metodoei dagokienez, tortura sistematiko batetik tortura « xuri »-ra jauzi egin du. Bestalde, Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) lanak aztertuko dira. Espainiar Estatuan antiterrorismoari lotutako legeriak tortura bermatu duela erakutsiko da, konparazioen, inkomunikazioaren sistema atxikiz.

Tortura salaketak kalitatezko eta kantitatezko ikerketen bidez analizatuko dira. Gainera, elkarrizketak eginen dira orain arte eginak izan diren lanak osatzeko.

Horretaz gain, GKE azterketatik haratago erakutsiko da Espainiar Estatuan torturatzen dela nahiz eta Nazio Batuetako Torturaren Aurkako Komiteak (TAK) eta beste hainbat taldek

1 Zuzendaritza bikoitza formalizatzeko prozesuan Francisco Etxeberria Gabilondo-rekin.

salatzen duten. Europa mailan egin diren azterketak adierazteko, Kontseilu Europarreko Torturaren Aurkako Komiteak (CPT) Espainiaren kasua segitzen du. Talde honek adibidez urtero txostenak argitaratzen ditu eta azken aldikoz 2011. urtean hamar tortura kasu atzeman zituen (Conseil de l'Europe; 2013) eta inkomunikazioaren neurri berezia salatu.

Azkenik, generoaren problematika aztertuko da emazte eta gizonei eman tratatu desberdinak erakusteko asmoarekin. Lan hori immigraziotik datozen pertsonen bidez egingen da ere bai.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Euskal Herrian tortura-ren gaiak azterketa berriak ekarri ditu joan den urtean eta *Euskadin gertatutako tortura kasuak ikertzeko proiektua (1960-2013)* (Etxeberria, Martin Beristain eta Pego; 2016) adierazgarriena da. Nazioartean eta Europa mailan, urtero txosten berezituak argitaratzen dira munduan zehar gertatzen diren tortura kasuak adierazteko eta egoera horietan praktikak salatzekeo estatuak epaituz. Espainiar Estatuan ere bai, *Defensor del Pueblo* organismoak kasu batzuk azaltzen ditu. Hala ere, Euskal Herriari dagokionez ikerketa gutti atzematen da. Ikerketa honentzat Istanbulgo Protokoloak ikuspegi zientifiko bat ekartzen du, eta normalean torturaren kasuak frogatzen ahal ditu. Horregatik, Europar Batasunean den protokolo honek torturaren inguruko lanak bultzatzen ahalko ditu.

Egitasmo horren helburuak anitzak dira. Alde batetik, Euskal Herriaren historian kokatzen bada, torturaren azterketa memoria lantzeko gai bezala agertuko da. Frankismo garaitik gaurregun arte izan diren kasuak adieraziko dira; hein batean memoria kolektiboa eta egiaren adierazle izateko nahia du tesia lan xume honek.

Bestalde, proiektuak Espainiar Estatuaren Trantsizio demokratikoaren modeloaren sinespenarekin hautsi nahi du. Bide horretatik, lan kritikoa egingen da eta Trantsizio demokratikoaren mitoa deseraikitzekeo asmoa du, Beste akademiko batzuk definitu duten haritik aurkeztuko da, konparazioa, Baby-ren lana (Baby; 2012) oinarri gisa hartuz. Horren irudikatzekeo torturari lotutako erreformak edo tortura bermatu duen testuingurua aztertuko da.

Alderantziz, torturaren egiaztatzea ukanen dugu helburu. Hain zuzen, euskal gatazkari dagokionez tortura salaketak usutan estrategiatzat hartuak izan dira. Hemen erakutsiko da kasu faltsuak marginalak izan zirela (Etxeberria, Martin Beristain eta Pego; 2016). Memoria, egia eta elkarbizitzarendako elementu garrantzitsu bat dela azpimarratuko da.

Horrez gain, torturaren pratika jendarte patriarkalaren adierazle bat dela azpimarratuko da. Tortura metodoen aplikazioa aztertuko da. Generoaren eta tortura metodoen arteko lotura analizatuko da.

Azkenean, lan honek Estatu demokratikoen kritika bat izatekeo asmoa du. Tortura, adierazle bat izanen da. Faktore honen bidez frogatuko da Estatu demokratikoek ez dituztela Giza eskubideak bermatzen eta nazioartean plantan ezarriak diren mekanismoak ez direla beti ibiltzen.

3. Ikerketaren muina

Ikerketaren muinaren metodologia aurkeztuko da. Tesia burutu baino lehen ikerketa prozesua zein izanen den azaltzeko. Euskal gatazkari loturik, Espainiar estatuan gertatu tortura kasuak aztertuko dira 1960. urtetik 2013. urtera arte.

Lurraldetasunaren aldetik Euskal Herriko zazpi probintzia historikoak hartuko dira oinarri hala nola Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE), Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako probintziez osatua, Nafarroako Foru Erkidegoa, Nafarroako probintzia eta Ipar Euskal Herria, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa probintziez osatua.

Euskal Herrian gertatutako tortura kopuruak eta kasuak perspektiban jartzeko, konparaketa bat eginen da dokumentuzko ikerketaren bidez eta elkarrizketen metodoa erabiliz immigraziotik etorri pertsonen eta beste militanteek (sindikalista, nazionalista etab.) jasan dituztenekin. Horren bidez aztertuko da tratu berezi bat izan denez euskal gatazkari lotutako kasuentzat edo praktika orokortua denez. Oinarri gisa, Frantziako konstituzioa eta Espainiakoa aztertuko dira eskubide eta askatasunen alorrean.

Bestalde, tortura kasuak aztertuko dira aro desberdinen arteko konparaketa bat eginez, dokumentu ikerketa metodoaren bidez. Frankismo garaian gertatutako tortura kasuak, Trantsizio garaikoak eta Trantsizioetik 2013. urtera arte izan direnak konparatuko ditugu. Analisia misto baten bidez eginen da; kalitatezko eta kantitatezko azterketen bidez. Lehenik eta behin, Espainiaren eta Torturaren artean diren loturez eginak izan diren txosten guzien erreferentzia jarriko dugu. Horren adierazteko Amnesty International, Argituz, Euskal Memoria, CPT, ACAT edota Defensor del Pueblo bezalako ikerketak sailkatuko dira. Dokumentu ikerketaren metodoa aplikatuko da. Alde batetik, saiaturako gara *Guardia Civil* eta Gobernu Kanpoko Erankudeen (GKE) txostenetako informazioak kurutzatzen. *Guardia Civil*aren kasuen azterketa berezi bat izanen da, jakinez artxibo horiek ez direla oraindik analizatuak izan, bereziki Nafarroan. EAEn egiten ari den txostena (Etxeberria, Martin Beristain eta Pego; 2016) oinarri gisa hartuko da. Txosten honen lurralde eremua EAEn mugatzen bada ere elementu zientifiko berriak ekartzen ditu. Metodoaren aldetik, Istanbulgo Protokoloa erabilia izan da tortura kasuak aztertzeko. Honen bidez gure lana aberastuko du eta estuki segituko dira txosten honetan izan diren emaitzak eta analisia taulak.

Lan honen metodologian, elkarrizketaren metodoa izanen da oinarri bat. Lekukotasun ezezagunak agertuko dira. Tortura kasuak adierazteko eta frogatzeko gisan elgarritzeta horiek ekarpen berriak izanen dira. Istanbulgo Protokoloan oinarrituko gara lekukotasun horien biltzeko.

Generoari dagokionez, kantitatezko eta kalitatezko metodo mistoa erabiliko da. Dokumentu ikerketa oinarri eta elkarrizketaren metodoaz osatuz, tortura kasuetan generoaren gaia analizatuko da. Imigrazioari dagokionez, konparaketa erabiliko da. Hemen azalduko da pertsona ahulak, eskubide eta askatasunen aitzinean, estatuaren tortura jasatzen dutela. Euskal gatazkari lotutako pertsonak eta imigratzen duten pertsonen gutiengo baztertuak bezala adieraziko dira.

4. Ondorioak

Ondorio hipotetikoak azalduko dira.

Lan honetan, aztertuko dira sekulan analizatuak izan ez diren datu batzuk, diziplina anitzeko ikuspegiarekin. Zuzenbide publikoa, Nazioarteko zuzenbide publikoa, Nazioarteko zuzenbide humanitarioa, Zientzia politikak, Psikologia, Soziologia, Historia eta Genero ikerketarako tresnak baliatuko dira. Tortura euskal gatazkaren baitan kokatzeko kontestualizazio lan bat eginen da. Panorama zabala eta zehatz baten eraikitze zientzia politikoen arloko ikerketak, historiakoak eta soziologikoak mobilizatuko dira.

Euskal Herri mailako tortura kasuen zenbakiak azalduko da, aurreko metodologiaren bidez atzemanen ditugunak. Horrek erran nahi du zazpi probintzietako zenbakiak aterako direla.

Zuzenbidearen ikuspuntutik, ikerketa hori mistoa izanen da. Alde batetik Nazioarteko zuzenbide humanitarioa eta publikoa jorratuko dira tortura konbentzioak, protokoloak eta arauak analizatzeko. Bestalde, Espainiaren Trantsizio demokratikoa aipatuko delarik zientzia politikoetan eta zuzenbide publikoan existitzen diren kontzeptuak erabiliko dira. Estatu demokratikoen eta Zuzenbidezko estatuen mugak aztertuko dira Espainiaren kasua adibide gisa hartuz. Eskubide eta askatasunen oinarriak ere zalantzan jarriko dira. Espainiako legegintzak eraiki dituen neurri antiterroristak aztertuko dira; bereiziki inkomunikazio araubideak tortura ahalbidetzen duela frogatuz.

Psikologian atzemandako kontzeptu eta metodoak baliatuko dira bereziki torturaren metodo ezberdinak aztertzeko. Horrez gain, biktima eta borroeroaren (Sironi; 1999) irudiak ikertu egingen dira.

Soziologiari eta zientzia politikoei dagokienez, Euskal Herriko jendartea gatazka politikoaren harira analizatuko da. Hemen, elkarbizitza, memoria eta egiaren tematikak jorratuko dira. Erakutsiko dugu tortura gatazkaren arma bat izan dela.

Bukatzeko, generoa eta soziologia arloak nahasiko dira. Lan hori genero ikuspuntu batekin osatuko da. Emazteen eta gizonen tratatzeko metodo ezberdinak azpimarratuko dira. Azkenik, jendarte eta kultura patriarkalaren galdera pausatuko da.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Alde batetik Euskal Herria hobeki ulertzen lagunduko du, batez ere Euskal Herria bere historia politikoaz jabetzeko aukera izanen da.

Nazioarte eta Europa mailan tortura kasuen salaketa egiten da, Giza Eskubideen bidetik. Euskal Herrian den gatazka politikoari lotutako tortura kasuak aztertzen dira. Eramanen den lanak argibideak ekarriko ditu eta Euskal Herriri lotutako kasuak adieraziko ditu.

Euskal jendartearentzat tresna bat sortu nahi da. Euskal Herriaren soziologia, historia eta politika irakurketa bat egingen da. Elkarbizitza, egia eta memoriaren gaiak hunkiko dira. Alde hortatik, lan hori baliagarri izanen da Euskal Herriko jendearen historia integralaren kondaira egiteko momentuan.

Euskal Herriaren testuinguru politikoa aztertuko da; Espainiar eta Frantziar Estatuaren arteko kokapenak dakarren gatazka politikoa, batez ere Euskal Herriko zazpi probintzien eta hiru errealtate instituzionalen ezagutzea.

Espainiar estatuan egiten den demokraziaren definizioak ez du tortura ezaren praktika bermatzen. Horrek Euskal Herrira ekarriko gaitu berriro, Euskal Herriko gatazkan agertu kasuak estuki lotuak baitira; bereziki, « inkomunikazioak » eta lege « antiterroristen » baitako kasu horiek tratatuak dira. Hemen, Euskal Herriaren irakurketa judizial eta politiko bat egingen da.

6. Bibliografia

6.1 Liburuak

Baby, S. (2012): *Le mythe de la transition pacifique : Violence et politique en Espagne (1975-1982)*, Casa de Velázquez, Madrid.

Branche, R. (2016): *La torture et l'armée pendant la guerre d'Algérie (1954-1962)*, Gallimard, Folio Histoire.

Campuzano, F. (2011): *La transition espagnole entre réforme et rupture (1975-1986)*. Presses Universitaires de France, PUF.

Jeangene Vilmer, J.-B. (2011): *Pas de paix sans justice ? Le dilemme de la paix et de la justice en sortie de conflit armé*. Presses de Sciences Po.

Mirko, B. eta Clarke, J. (2007): *Torture : When the Unthinkable is Morally Permissible*, State University, New York.

Savater, F. eta Martinez Fresneda, G. (1982): *Teoria y presencia de la tortura en España*, Anagrama, Barcelona.

Shue, H. (2016): *Complicity and Torture*, Journal of Medical Ethics.

Shue, H. (2016): *Fighting Hurt : Rule and Exception in Torture and War*, Oxford University Press.

Sironi, F. (1999): *Bourreaux et victimes : psychologie de la torture*, Odile Jacob.

Terestchenko, M. (2008): *Du bon usage de la torture*, La Découverte “Cahiers Libres”, Paris.

Tomas y Valiente, F. (2000): *La tortura judicial en España*, Critica, Barcelona.

6.2 Liburuen kapituluak

Beard, M. (2016, 4. kap.): *The Human Costs of Torture*, In Ethics and the Futur of Spying: Technology, National Security and Intelligence, Routledge, New York.

Giannouloupolos, D. (2016, 13. kap.): *Torture, Evidence and Procedure in the Age of Terrorism : a barbarization of Criminal Justice System ?*. In Warrior's dishonour : Barbarity, Morality and Torture in Moderne Warfare, Routledge, New York.

Jackson, R. (2016, 9. kap.): *The Discursive Construction of Torture in the War on Terror : Narratives of Danger and Evil*. In Warrior's dishonour : Barbarity, Morality and Torture in Modern Warfare, Routledge, New York.

Plaxton, M. (2016, 12. kap.): *Justifying Aboslute Prohibitions on Torture as if Consequences Mattered*. In Warrior's dishonour : Barbarity, Morality and Torture in Modern Warfare, Routledge, New York.

Tilly, C. eta Tarrow, S. (2015, 8. kap.): *Le conflit dans les régimes mixtes*. In Politiques du conflit : de la grève à la révolution. Les Presses de Science Po.

6.3 Artikuluak

Baliga, S. et C. Elly, J. (2016), Torture and the commitment problem, *The Review of Economic Studies*, 83 z., 1406-1439 orr.

Conant, L. (2016), Who Files Suit? Legal Mobilization and Torture Violations in Europe, *Law & Policy*, The Uniersity of Denver/Colorado seminary.

Conrad R., C. (2014), Divergent Incentives for Dictators : Domestic institutions and (International Promises not to) Torture, *Journal of Conflict Resolution*, 58. b., 1. z., 34-67 orr.

Conrad R., C. eta Hencken Ritten, E. (2013), Treaties, Tenure and Torture : The Conflicting Domestic Effects of International Law, *Journal of Politics*, 75 b., 2 z., 397-409 orr.

Cunillera Domenèch, M. (2016), Evaluation et gradation dans une décision de la cour européenne des droits de l'homme, *Corela* [On line], O-K 19.

Daxecker, U. (2015), Dirty Hands : Government Torture and Terrorism, *Journal of Conflict Resolution*.

Del Rosso, J. (2016), Talking about Torture: How Political Discourse Shapes the Debate, *Human Rights Law Review*, 16 b., 3 z., 606-610 orr.

Einolf, C. (2016), The Ethics and Politics of Torture, *Public Administration Review*, 76b., 2 z., 354-357 orr.

Garcia Amado, J. A. (2016), ¿ Puede la tortura estar moralmente justificada en algún caso ?, *Revista Nuevo Foro Penal*, 12. b., 86 z., 13-61 orr.

Gomez Roda, A. (2005), La tortura en España bajo el franquismo: testimonio de torturas durante la dictadura y la transición a la democracia, *Revista de pensamiento contemporáneo*, 17 z., 49-67 orr.

Jimenez Ramirez, M. C. (2016), La tortura en el marco del derecho internacional humanitario, *Summa Iuris*, 3 b., 2 z., 309-329 orr.

Morentin, B., Idoyaga, I., Callado F., L. eta Meana, J. (1995), Prevalence and Methods of Torture claimed in the Basque Country (Spain) during 1992-1993, *Forensic Science International*, 76 b., 2z., 151-158 orr.

Robaina, M. C. (2016), Efectos tardíos de la tortura: reparación y aportes desde la psicología, *Ilcea* [On line], 26z.

Rozenberg, D. (2015), La mémoire du franquisme dans la construction de l'Espagne démocratique: les voies incertaines d'une réconciliation nationale, *Témoigner: Entre histoire et mémoire* [En ligne], 117 z.

Sallah-Eddine, S. (2004), La torture, antichambre de la mort, *Confluences Méditerranée*, 4 b., 51 z., 23-38 orr.

Ulriksen De Viñar, M. eta Viñar M. (1995), La torture: meurtre du symbole, *Lignes*, 3 bol., 26 z., 142-163 orr.

Weierstall, R., Elbert, T. eta Maercker, A. (2015), Torture: Psychological Approaches to a Major Humanitarian Issue, *Zeitschrift für Psychologie*, 219 b., 3 z., 129-132 orr.

6.4 Tesiak, tesinak, txostenak, agiriak etab.

Argituz, AEN, Ekimen Elkartea, GAC, Jaiki-Hadi, OME, OALDE, Dpto. De Psicología Social (EHU/UPV), (2015): Incommunicado detention and torture : Assessments using the Istanbul Protocol, Txostena.

Conseil de l'Europe, (2013): Report to the Spanish government on the visit to Spain carried out by the European Committee for the Prevention on Torture and Inhuman or Degrading Treatment or Punishment (CPT) : from 31 May to 13 June 2011, Txostena.

De Zaldua, S., Peralva, A. (zuz.) eta De La Condamine, C. (2015): Les mécanismes de la prévention de la torture en Argentine : les limites du droit international face aux réalités locales. *In Cultures et sociétés, Études sur les Amériques*, Institut pluridisciplinaire pour les Études sur les Amériques, Toulouse.

Etxeberria, F., Martin Beristain C., Pego L. (2016): Euskadin gertatutako tortura kasuak ikertzeko proiektua (1960-2013), Jarduenaren memoria laburpena, Eusko Jaurlaritza (arg.).

Mendizabal Zubiaurre, L., Bengoetxea Caballero, J. (zuz.), (2015): Justizia transizionala Euskal Herriarentzat : azterketa kritiko bat, Zuzenbide publikoa [Tesina], EHU/UPV.

Perez Mendez, R., Ezeiza Ramoz, J. (zuz.) (2015): Tortura prebenitzeko eta ikertzeko metodoen analisisia kriminologiaren ikuspuntutik : torturaren errealitatea eta kriminologoaren funtzioa. Kriminologia [Tesia], EHU/UPV.

Quiroaga J., M. eta Jaranson, J. (2005): Politically-motivated torture and its survivors : A desk study review of literature, *Rehabilitation and Research Centre for Torture Victims (RCT)*, 112 orr.

Rouget D. (1995): La Convention Européenne pour la prévention de la torture et des peines ou traitements inhumains ou dégradants, Zuzenbide publiko europarra, Komunitarioa [Tesia], A.N.R.T. Lille 02, 838 orr.

7. Eskerrak eta oharrak

Eskerrak UPPAko IE2IA ikerkuntza taldeari eta Jean-Pierre Massias tesia honen zuzendariari, lan honetan konfiantza egiteagatik.

Lan hori doktore tesiaren eraikitze prozesuan kokatzen da.